**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ABANTO Y CIÉRVANA - ABANTO ZIERBENAKO UDALAREN ETA EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, GUZTIEK ERABILIKO DUTEN ERAIKIN BAT EGITEKO. EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN KULTURA ETA INGURUMEN PARKEAREN INTERPRETAZIORAKO ZENTROA HARTUKO DU.**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, EL AYUNTAMIENTO DE ABANTO Y CIÉRVANA - ABANTO ZIERBENA Y LA FUNDACIÓN MUSEO DE LA MINERÍA DEL PAÍS VASCO, PARA LA CONSTRUCCIÓN DE UN EDIFICIO, DE USO CONJUNTO, QUE ALBERGUE EL CENTRO DE INTERPRETACIÓN DEL PARQUE CULTURAL Y AMBIENTAL DE LA MINERÍA DEL PAÍS VASCO.**

Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenan, 2015eko martxoaren 5ean

En Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena, a 5 de marzo de 2015.

**AGERTU DIRA**

ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA andrea, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean, Gobernu Kontseiluak 2015eko martxoaren 3an egindako bileran Hitzarmen hau sinatzeko baimenduta.

MAITE ETXEBARRIA AZPIOLEA andreak, Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako alkateak, Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udalaren izenean eta ordezkari-lanetan jarduten du, Udalbatzak 2013ko otsailaren 9an onetsitako akordioari jarraiki, eta bertako idazkari nagusiak igorritako ziurtagiriak hala egiaztatuta.

**COMPARECIENTES**

Dña. ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA, Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, en representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, autorizada para la firma del presente Convenio por el Consejo de Gobierno reunido en su sesión de 3 de marzo de 2015.

Dña. MAITE ETXEBARRIA AZPIOLEA, Alcaldesa del Excmo. Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena. Interviene en nombre y representación del Excmo. Ayuntamiento de Abanto Zierbena, en virtud de acuerdo adoptado por el Órgano Plenario de la Corporación en fecha 9 de Febrero de 2013, acreditado mediante certificación expedida por su Secretario General.

CARMELO URIARTE OLANO jauna, Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioaren presidentea da. 2001eko apirilaren 25ean, Bilboko Carlos Ramos Villanueva notario jaunaren aurrean emandako mila bederatziehun eta hogeita lau zenbakidun eskritura publikoak eratu zuen fundazio hori; IFZ G95157368 zenbakiduna da eta EAEko Fundazioen Erregistroan F-106 zenbakiarekin inskribatu zen. Carmelo Uriarte Olano jaunak fundazio horren presidente gisa jarduten du eta hitzarmen hau sinatzeko ahalmen nahikoa dauka, 2001eko apirilaren 25ean Bilboko Carlos Ramos Villanueva notario jaunaren aurrean eman baitzitzaion, eta mila bederatziehun eta hogeita bost protokolo zenbakia duen ahalordetze-eskriturari jarraiki.

Alderdiek honako dokumentu hau gauzatzeko ahalmen juridikoa aintzatetsi diote elkarri eta, horrekin bat, honako hau

D. CARMELO URIARTE OLANO Presidente de la Fundación Museo de la Minería del País Vasco, constituida en escritura pública otorgada ante Notario de Bilbao Don Carlos Ramos Villanueva el día 25 de abril de 2001 con nº mil novecientos veinticuatro, con CIF número G95157368, e inscrita en el Registro de Fundaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco con nº F-106. Interviene Don Carmelo Uriarte Olano en su calidad de presidente de la citada Fundación, con poderes suficientes para la celebración de este convenio en virtud de escritura de apoderamiento otorgada ante Notario de Bilbao Don Carlos Ramos Villanueva el día 25 de abril de 2001 con nº de protocolo mil novecientos veinticinco.

Todos ellos se reconocen mutuamente la capacidad jurídica para la formalización del presente documento y, a tal efecto,

**AZALDU DUTE**

**Lehenengoa.-** Euskadiko Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.17. eta 11. artikuluetan eta Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 h) eta m) artikuluetan ezarritakoarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udalak, hurrenez hurren, eskumenak dituzte ingurumenaren eta kulturaren alorretan.

**EXPONEN**

**Primero.-** De acuerdo con lo establecido en los artículos 10.17 y 11 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el artículo 25.2, h y m de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Excelentísimo Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena, respectivamente, ostentan competencias en materia de medio ambiente y cultura.

Bestalde, Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioa 2001eko apirilaren 25ean sortu zen, honako helburu hauekin:

1. - Meatzaritzaren eta hark ekonomiarengan, gizartearengan eta ingurumenarengan izandako eraginaren garapen historikoa aztertzea eta zabaltzea.
2. - Meatzaritzatik eratorritako elementu material, industrial, hiritar eta azpiegituretakoak babestu eta berreskuratzea.
3. - Garai hartako eta meatzaritzari loturiko dokumentuak, artxiboak, planoak, irudiak, marrazkiak eta argazkiak berreskuratzea eta kontserbatzea.
4. - Inguruneko paisaiak eta elementuak aztertzea meatzaritzak haiengan eragina izan duen kasuetan eta garrantzitsutzat jotzen direnak kontserbatzeko joera bultzatzea.
5. - Jasangarritasunerako irizpideak kontuan hartuta, Bizkaiko meategien garapen sozioekonomikoa eta turismoa sustatzea, balio kultural eta naturalak ezagutzera emanda.
6. - Arestian aipatutakoekin lotutako beste edozein helburu.

Kide fundatzaileak Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udala eta Meatzaritzaren Museoa Kultur Elkartea dira, fundazio-eskrituran jasota dagoen bezala. Honako hauek osatzen dute patronatua: Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udalak izendatutako 3 kide; eta, Meatzaritzaren Museoa Kultur

Por otra parte, la Fundación Museo de la Minería del País Vasco se constituyó con fecha 25 de abril de 2001 con los siguientes fines:

1. - El fomento del estudio y la divulgación del conocimiento del desarrollo histórico de la actividad minera y de sus consecuencias económicas sociales y medioambientales.
2. - La protección y recuperación de los elementos materiales, industriales, urbanos y de infraestructura procedentes de la actividad minera.
3. - La recuperación y conservación de documentos, archivos, planos, imágenes, dibujos y fotografías procedentes de la época y actividad minera.
4. - El estudio de los paisajes y elementos del medio natural en cuyo estado actual haya influido la actividad de la minería y el fomento de la conservación de lo que se consideren especialmente relevantes.
5. - La promoción, teniendo en cuenta criterios de sostenibilidad, del desarrollo socioeconómico de la zona minera de Bizkaia y el fomento del turismo mediante divulgación de sus valores culturales y naturales.
6. - Cualquier otro relacionado con las anteriores.

Los miembros fundadores son el Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena y la Asociación Cultural Museo Minero tal y como recoge su escritura fundacional, y la composición actual de su patronato es la siguiente: 3 miembros designados por el Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena y 6

Elkarteak izendatutako beste 6 kide.

miembros designados por la Asociación Cultural Museo Minero.

**Bigarrena.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra Ortuellako PEÑAS NEGRAS Ingurumen Interpretazioko Zentroaren titularra da, eta hori kudeatzen du, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren bitartez. Interpretaziorako zentro horrek berrikuntza integrala behar du; horretarako, inbertsio handia egin beharko da.

**Segundo.-** La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi es titular y gestiona a través del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial el Centro de Interpretación Ambiental de Peñas Negras en el término municipal de Ortuella. El citado centro de interpretación precisa de una renovación integral requiriendo por tanto una importante inversión.

**Hirugarrena.-** Meatzaldea – Zona Minera Biotopo babestua izendatzen duen Dekretua hemendik gutxira onartuko da eta komenigarria da naturagune babestu osoarentzako interpretaziorako zentroa sortzea.

**Tercero.-** En breve se aprobará el Decreto de Declaración del Biotopo protegido de Meatzaldea- Zona Minera, y es conveniente crear un centro de interpretación ambiental sobre todo el Espacio Natural Protegido.

**Laugarrena.-** Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udala gaur egun Meatzaritzaren Museoa eta Korta Eraikina kokatuta dauden lursailen jabea da, eta Euskal Herriko Meatzaritzaren Kultura eta Ingurumen Parkearen Proiektua bertan egitea proposatu da. (I. eranskina Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udalaren Ondarea).

**Cuarto.-** El Ayuntamiento de Abanto Zierbena es el propietario de los terrenos donde se ubica actualmente el Museo Minero y el Edificio Corta donde se propone edificar el Proyecto de Parque Cultural y Ambiental de la Minería del País Vasco”. (Anexo I: Patrimonio del Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena).

**Bosgarrena.-** Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioarenak dira proiektua eta "Korta Eraikina" (Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioaren Ondareari buruzko II. eranskina), eta azken horretan eraikiko da Kultura eta Ingurumen Parkearen Interpretaziorako Zentro berria.

**Quinto.-**La Fundación Museo de la Minería del País Vasco es propietaria del proyecto y de la estructura del “Edificio Corta” (Anexo II Patrimonio de la Fundación Museo de la Minería del País Vasco), sobre el que se construirá el nuevo Centro de Interpretación del Parque Cultural y Ambiental.

**Seigarrena.-** Hitzarmena sinatu duten alderdiek lurraldeko museoen, interpretazioaren eta kultura eta

**Sexto.-** Las partes firmantes vienen desarrollando o tienen la necesidad de desarrollar actuaciones en el ámbito

ingurumen hezkuntzaren alorrean eta Meatzaldeako meatzaritza-ondarearen inguruan jardun dute edo aritzeko beharrizana dute, eta honako hauek dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra (Peñas Negras Ingurumen Interpretazioko Zentroaren bitartez), Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udala eta Meatzaritzaren Museoa Kultur Elkartea (Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioaren bitartez).

**Zazpigarrena.-** Jarduera-esparru horren barruan, hiru alderdiek administrazio arteko lankidetza ekimena bultzatzeko interesa adierazten dute, ingurumen eta kulturaren arloko Interpretaziorako Zentro bat sortzeko. Ildo horretatik, gaur egun Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoan, Peñas Negras Ingurumen Interpretazioko Zentroan eta Meatzaldea Biotopoaren etorkizuneko Interpretaziorako Zentroan kokatuta dauden baliabideak elkartuko dira; horrela, sinergiak sortu eta baliabide publikoak optimizatu nahi dira, “Euskal Herriko Meatzaritzaren Kultura eta Ingurumen Parkea” izena izango duen erakusketa eta ingurumen-interpretaziorako gune bakarra sortuta.

**Zortzigarrena.-** Interpretaziorako zentro horrek Gallartako Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoaren eraikin berrian bukatu gabe dauden instalazioetan (Korta eraikina) du kokatzeko aukera; horren titularra Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioa da. Gune horretan, proiektuak batu eta integratuko dira, eta Museoaren jarduerei ingurumen balioak gehituko zaizkie. Jarduera horiek meatzaritzatik eratorritako elementu material, industrial, hiritar eta

museístico, de la interpretación y de la educación cultural y ambiental del territorio y el patrimonio minero de Meatzaldea; la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi a través del Centro de Interpretación de Peñas Negras, y el Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena y la Asociación Cultural Museo Minero mediante la Fundación Museo de la Minería del País Vasco.

**Séptimo.-** Dentro del marco de actuación señalado, las tres partes manifiestan su interés por impulsar una iniciativa de colaboración inter administrativa para crear un Centro de interpretación ambiental y cultural, que aúne recursos hoy día ubicados en el Museo de la Minería del País Vasco, el Centro de Interpretación de Peñas Negras y un futuro Centro de Interpretación del Biotopo de Meatzaldea con el fin de generar sinergias y optimizar los recursos públicos generando un espacio único de exposición e interpretación ambiental que se denominará “Parque Cultural y Ambiental de la Minería del País Vasco”.

**Octavo.-** Este centro de interpretación tiene su oportunidad en las instalaciones inacabadas del nuevo edificio del Museo de la Minería del País Vasco en Gallarta (Edificio Corta), cuya titularidad ostenta la Fundación Museo de la Minería del País Vasco, donde se unificarán e integrarán los proyectos, incorporando los valores ambientales a las actividades del propio Museo que tienen por objeto recuperar, proteger, conservar y difundir tanto los

azpiegituretakoak babestu eta berreskuratu nahi dituzte.

elementos materiales, industriales, urbanos y de infraestructura procedentes de la actividad minera.

Beraz, alderdi guztiek gure historia eta kultura islatu eta horiek gure ingurunean duten eragina erakusten duen zentroa bultzatzeko ardura dute; horrek, gainera, garapen ekonomikorako aukera aparta dakar, kultura, ingurumen eta turismoaren arloko goi-mailako baliabidea baita. Izan ere, bisitari eta turista askok bisitatzeko moduko aisialdirako gune bilakatzeko trakzio-elementua izan ahal da eskualde horretan, meatzaritzako paisaiak erakarrita. Hortaz, alderdiek konpromisoa hartzen dute “Kultura eta Ingurumen Parkearen Interpretaziorako Zentroa” eraiki eta abian jartzeko.

Por tanto, todas las partes, preocupadas por impulsar un centro donde se refleje nuestra historia y cultura y su influencia en nuestro medio natural, que además supone una oportunidad de desarrollo económico ya que se trata de un recurso cultural, ambiental y turístico de primera magnitud que servirá de elemento tractor en la comarca para en su transformación como lugar de ocio y destino de muchos visitantes y turistas atraídos por el paisaje minero, se comprometen a construir y poner en marcha el “Centro de Interpretación del Parque Cultural y Ambiental de la Minería del País Vasco”.

**Bederatzigarrena.-** Horren ondorioz, Euskal Herriko Meatzaritzaren Kultura eta Ingurumen Parkearen Interpretaziorako Zentroa eraiki eta abian jartzeko lankidetza-jarraibide orokorrak ezartze aldera, agertutako herri-administrazioek eta Fundazioak egokitzat jo dute juridiko-administratiboa den Lankidetza Hitzarmen hau sinatzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 3,4.1. d), 4.5 eta 6. artikuluetan, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57 eta 87 artikuluetan, eta Udal Erregimenaren arloko indarreko legezko xedapenen testu bategina onetsi zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 111. artikuluan ezarritakoarekin bat. Honako hauei jarraiki:

**Noveno.-** En consecuencia, a fin de establecer las pautas generales de cooperación y colaboración que han de regir la construcción y puesta en marcha del Centro de Interpretación del Parque Cultural y Ambiental de la Minería del País Vasco, las Administraciones Públicas comparecientes y la Fundación consideran adecuado suscribir el presente Convenio de Colaboración, de naturaleza jurídico-administrativa conforme a lo establecido en los artículos 3,4.1. d) y 4.5 y en el artículo 6 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y los artículos 57 y 87 de la de la Ley 7/1985, de Bases de Régimen Local y el artículo 111 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, con arreglo

a las siguientes:

**KLAUSULAK**

**Lehena.- Xedea**

Hitzarmen honen helburua da honako erakunde hauen jarduera-esparrua ezartzea: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udala eta Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioa. Horrela, Euskal Herriko Meatzaritzaren Kultura eta Ingurumen Parkearen Interpretazioa Zentroa egingo dute, guztiek erabili ahal izateko, Obrak Exekutatzeko Proiektuan jasotakoari jarraiki (III. Eranskin gisa gehitu da). Horretarako, gutxi gorabeherako aurrekontua 1.845.472,64 euro dira.

Eraikin berria *Corta Eraikina*ren instalazioak oinarritzat hartuta egingo da; Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioa da haren jabea (II. Eranskina).

**Bigarrena.- Obrak hastea eta exekutatzea**

1.- Hitzarmen hau sinatzen duten erakundeek "Euskal Herriko Meatzaritzaren Kultura eta Ingurumen Parkearen Interpretaziorako Zentroa" proiektua exekutatzeko konpromisoa hartu dute, agiri honetan bildutako baldintzei jarraiki. Hitzarmen honi dagokion III. Eranskin gisa gehitu dira xedapen horiek.

2.- Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioak Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako

**CLÁUSULAS**

**Primera.- Objeto**

Es objeto del presente Convenio establecer el marco de actuación institucional de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, del Ayuntamiento de Abanto Zierbena y de la Fundación Museo de la Minería del País Vasco, para la construcción de un edificio de uso conjunto con destino al Centro de Interpretación del Parque Cultural y Ambiental de la Minería del País Vasco, de conformidad con lo previsto en el Proyecto de Ejecución de Obras que se adjunta como Anexo III, y con un presupuesto estimado de 1.845.472,64 euros.

El nuevo Edificio se realizará sobre la base de las instalaciones del *Edificio Corta*, cuya propiedad ostenta la Fundación Museo de la Minería del País Vasco (Anexo II).

**Segunda.- Inicio y Ejecución de las obras**

1.- Las entidades firmantes del presente convenio se comprometen a ejecutar el Proyecto "Parque Cultural y Ambiental de la Minería del País Vasco", que se adjunta como Anexo III al presente convenio, de acuerdo a las disposiciones contenidas en el presente documento.

2.- La Fundación Museo de la Minería del País Vasco pondrá a disposición del Ayuntamiento de Abanto y

Udalaren esku jarriko du *Korta Eraikina*, bertan gauzatzeko “Euskal Herriko Meatzaritzaren Kultura eta Ingurumen Parkearen Interpretaziorako Zentroa”, horixe baita hitzarmen honen xedea.

Ciérvana - Abanto Zierbena el *Edificio Corta* para que aquel pueda ejecutar sobre el mismo el Proyecto “Centro de interpretación del Parque Cultural y Ambiental de la Minería del País Vasco”, objeto del presente Convenio de Colaboración.

3.- Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udalak “Euskal Herriko Meatzaritzaren Kultura eta Ingurumen Parkearen Interpretaziorako Zentroa” proiektua gauzatzeko konpromisoa hartu du, hitzarmen honen zazpigarren klausulan aurreikusitako epearen baitan.

3.- El Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena se compromete a ejecutar el Proyecto Centro de Interpretación Parque Cultural y Ambiental de la Minería del País Vasco”, durante el plazo previsto en la Cláusula Séptima del presente Convenio.

Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udalak hitzarmen honen xede diren obren exekuzioa kontratatuko du, kontrazio publikoaren arloan indarreko xedapenekin bat, eta obra horien hasiera idatziz jakinaraziko die hitzarmena sinatu duten gainontzeko alderdiei. Horretarako, udalak eta kontratista esleipendunak sinatutako obren hasierako akta aurkeztuko die.

El Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena contratará la ejecución de las obras objeto del presente Convenio, conforme a las disposiciones vigentes en materia de contratación pública, y comunicará por escrito a las demás partes firmantes de este Convenio, el inicio de las obras, presentando el acta de inicio de los trabajos suscrita por el Ayuntamiento y el contratista adjudicatario.

Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udalak eta kontratista esleipendunak obren onarpenaren akta sinatu ondoren, udalak gainerako alderdiei jakinaraziko die, eta aipatutako toki-administrazioak bere gain hartuko du gauzatutako obra eta instalazioen titulartasuna.

Una vez que el Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena haya firmado el acta de recepción de las obras con el contratista adjudicatario, comunicará a las demas partes firmantes esta circunstancia, asumiendo la citada administración local la titularidad de las obras e instalaciones realizadas.

**Hirugarrena.- Finantzaketa**

**Tercera.- Financiación**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren bitartez, “Euskal Herriko Meatzaritzaren Kultura

1.- La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a través del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial,

eta Ingurumen Parkearen Interpretaziorako Zentroa" proiektuaren % 50 finantzatuko du, gehienez ere, 900.000 euro emanda. Ildo horretatik, Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udalari ordaintzeko, honako hau izango da urteroko banaketa ekonomikoa:

2015………...500.000 EURO
2016………..300.000 EURO
2017………...100.000 EURO
**GUZTIRA…..900.000 EURO**

Aipatutako ekarpenak honako partida honen kontura egingo dira: 15.01.09.22.0100.3.722.01.44210.004-k.

2.- Zenbateko horiek urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan ordainduko dira, betiere udalak eskatu ondoren.

Ekitaldi bakoitzari dagokion dokumentazioa (obren zuzendariak sinatutako obren exekuzioaren ziurtagiriak, udaleko idazkari kontu-hartzaileak egindako ziurtagirien bidez gauzatutako gastuak, etab.) Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari igorriko dio, urteko azken hiruhilekoan zehar. Horrela, eraikitzeko proiektua amaitzean, egindako gastu osoa egongo da justifikatuta, gauzatutako finantzaketari dagokionez.

**Laugarrena.- Publizitatea**

Obraren iragarpen-kartelean, hitzarmen honek helburu duen jardueraren finantzaketaren izaera

financiará el 50% del proyecto "Centro de Interpretación del Parque Cultural y Ambiental de la Minería del País Vasco", hasta un máximo de 900.000 euros. Para ello aportará al Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena las siguientes cantidades en las anualidades correspondientes:
2015………...500.000 EUROS
2016………..300.000 EUROS
2017………...100.000 EUROS
**TOTAL……..900.000 EUROS**

Las citadas aportaciones se realizarán con cargo a la partida presupuestaria 15.01.09.22.0100.3.722.01.44210.004-k.

2.- Las cantidades referidas se abonarán en el primer trimestre de cada año previa solicitud del Ayuntamiento.

La documentación correspondiente a cada ejercicio (certificaciones de ejecución de las obras emitidas por el/la directora/a de obra, los gastos realizados a través de certificaciones del el/la Secretario/a Interventor/a del Ayuntamiento...) se remitirá por el Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi durante el último trimestre del cada año, de tal forma que al finalizar el proyecto constructivo quede justificado la totalidad del gasto efectuado en relación a la financiación efectuada.

**Cuarta.- Publicidad**

En el cartel anunciador de la obra, deberá de darse la adecuada publicidad del carácter público de la

publikoaren publizitate egokia egin beharko da, eta adierazi beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak lagundu duela diruz.

financiación de la actuación objeto del presente convenio, con mención al patrocinio de la Administración General del País Vasco.

**Bosgarrena.- Jarraipen batzordea**

1.- Jarraipen batzordea eratu da, eta honako hauek osatzen dute:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria.
- Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbenako Udaleko alkatea.
- Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Fundazioaren presidentea, edo hark Fundazioaren patronatuan eskuordetutako beste kide bat.

2.- Batzorde horrek helburuak lortu direla eta hitzarmen honetan adostutako akordioak betetzen direla bermatu beharko du, baita beharrezkoak izan liratekeen beste neurriren batzuk proposatu ere.

3.- Hitzarmena indarrean egon bitartean, obrak ondo gauzatzeko beharrezkoa denean bilduko da batzordea, alderdietako batek hala eskatuta.

4.- Bai bilera egiteko, bai erabakiak onartzeko, honako quorum hau beharko da: kide guztien gehiengoa.

5.- Hitzarmenean Jarraipen Batzordeari buruz berariaz aurreikusten ez diren gaietan, kide

**Quinta.- Comisión de Seguimiento**

1.- Se constituye una Comisión de Seguimiento formada por

- Directora de Medio Natural y Participación Ambiental del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial de la Administración General del País Vasco.
- Alcaldesa del Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana - Abanto Zierbena
- Presidente de la Fundación Museo de la Minería del País Vasco, u otro miembro del patronato de la Fundación en quien delegue.

2. A esta Comisión le corresponderá velar por la consecución de los fines y el cumplimiento de los acuerdos fijados en el presente convenio, además de proponer cuantas otras medidas sean necesarias para el mejor desarrollo del mismo.

3.- Durante la vigencia del convenio, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las obras a propuesta de cualquiera de las partes.

4.- Los quórums de reunión y de adopción de acuerdos serán los de mayoría de sus miembros.

5.- En lo no previsto expresamente en el Convenio para la comisión de seguimiento, le será aplicable el

anitzeko organoen araubidea ezarriko da; hori Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Erregimen Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 2. tituluko II. kapituluan dago araututa.

régimen de los órganos colegiados regulado en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Régimen Administrativo Común.

**Seigarrena.- Izaera eta Interpretazioa**

**Sexta.- Naturaleza e interpretación**

1. Hitzarmen hau administratiboa da; beraz, hori interpretatu eta garatzeko, herri-administrazioen arteko lankidetza hitzarmenetan ezargarria den ordenamendu juridiko administratiboa ez ezik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren printzipioak ere bete behar ditu.

1. El presente convenio tiene naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas y por los principios del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

2. Hitzarmen honek edo haren exekuzioak sortu ahal dituen interpretatzeko arazoak konpondu behar izanez gero, Jarraipen batzordeari egokituko zaio eginkizun hori, aurreko klausulan ezarritakoarekin bat.

2. La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente Convenio o su ejecución corresponderá a la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior.

3. Hitzarmen honen interpretazioak, aldaketek, ondorioek edo ebazpenak eragin ditzaketen kontu eztabaidagarriak administrazioarekiko auzien jurisdikzio ordenak ezagutuko beharko ditu eta haren eskumena izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 8.3. artikuluak xedatutakoaren arabera, eta jurisdikzio ordena hori arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko Legean ezarritakoari jarraiki.

3. Las cuestiones litigiosas a que pueda dar lugar la interpretación, modificación, efectos o resolución del presente Convenio serán de conocimiento y competencia del Orden Jurisdiccional Contencioso-Administrativo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 8.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común y a tenor de lo establecido en la Ley de 13 de julio de 1998, reguladora de tal Orden Jurisdiccional.

**Zazpigarrena.- Hitzarmenaren ondorioak eta indarraldia**

1.- Hitzarmenak ez dakar alderdi parte-hartzaileek euren eskumenei uko egitea, ezta eskumenok aldatzea ere. Alderdi parte-hartzaileek, hitzarmena sinatuta, berez sortzen diren erantzukizunak soilik onartzen dituzte.

2.- Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo egunetik hasita egongo da indarrean eta Euskal Herriko Meatzaritzaren Kultura eta Ingurumen Parkearen Interpretaziorako Zentroaren obrak bukatutakoan amaituko da, 2017ko abenduaren 31rako espero dena.

**Zortzigarrena.- Hitzarmena azkentzea**

1.- Aurreko klausulan ezarritako indarraldia igarotzeagatik edo desegiteatik iraungiko da Hitzarmena.

2.- Alderdietakoren batek ez baditu betetzen hartutako konpromisoak, gainerako edozeinek izango du ahalmena hitzarmena desegiteko eskatzeko.

3.- Hitzarmenaren ebazpena eskatu aurretik, eskaera hori egiten duen alderdiak Jarraipen Batzordeari eskatu beharko dio hausnarketa egiteko. Batzordean erabakiko da hitzarmen honetako klausulak behar bezala betetzeko, neurri egokiren bat proposatzeko aukera, diru-laguntza itzultzeko aukera barne.

**Séptima.- Efectos y vigencia del Convenio**

1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El presente Convenio entrará en vigor al día siguiente al de su firma y finalizara cuando concluyan las obras del Centro de Interpretación del Parque Cultural y Ambiental de la Minería del País Vasco, lo que se estima que tendrá lugar el 31 de diciembre de 2017.

**Octava.- Extinción del Convenio**

1.- El Convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a cualquiera de las otras a solicitar la resolución del Convenio

3.- Con carácter previo a instar, en su caso, la resolución del convenio, la parte que pretendiera la misma habrá de someterla a la consideración de la Comisión de Seguimiento en cuyo seno se arbitrarán las propuestas de medidas oportunas a efectos del debido cumplimiento de las cláusulas del presente convenio, incluida las acciones de posible reintegro de las prestaciones entre las partes.

Eta azaldutako guztiaren ados daudela adierazteko, alderdiek Hitzarmen honen hiru ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako toki eta datan.

Y en prueba de conformidad con todo lo anteriormente expuesto, firman el presente Convenio, por triplicado ejemplar, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

| | | |
|---|---|---|
| **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN IZENEAN / POR LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI** | **ABANTO Y CIÉRVANA - ABANTO ZIERBENAKO UDALAREN IZENEAN / POR EL AYUNTAMIENTO DE ABANTO Y CIÉRVANA - ABANTO ZIERBENA** | **EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA FUNDAZIOAREN IZENEAN / POR LA FUNDACIÓN MUSEO DE LA MINERÍA DEL PAÍS VASCO** |
| **Ana Isabel Oregi Bastarrika** | **Maite Etxebarria Azpiolea** | **Carmelo Uriarte Olano** |